



13. AKTA

OHIKO UDALBATZARRA, 2007 abenduaren 26an izandakoa.

NON: Pasaiako hirian eta Pasai Antxoko Kultur Etxean

NOIZ: bi mila eta zazpiko azaroaren hogeita zazpian.

Bilkura-buru Maider Ziganda Población alkatea dutela eta Iker Rocandio Etxeberria, Jarduneko Idazkaria bertan dela, zinegotzi hauek etorri dira:

Pasaiako EAE-ANVko

ANDER POZA OLABIDE j. (eleduna)

IGNACIO GARMENDIA AGUIRREGABIRIA j.

OBDULIA LORENZO DE DIOS a.

MIREN EDURNE BAZTARRIKA BILBAOa.

IOSU BENGOCHEA ECHEVERRIA j.

ALVARO RICON RIVERA j.

PSE-EE-PSOeko

IZASKUN GOMEZ CERMEÑO a. (eleduna)

LORE SUAREZ LINAZASORO a.

VICENTE ICHASO GONZALEZ j.

JOSE BASTERRA MARFIL j.

JUAN MANUEL DOMINGUEZ LOPEZ j.

EAJ-PNVko

JOSE LUIS GOIKOETXEA GARMENDIA j. (eleduna)

JOAQUIN MARTINEZ VIDAL j.

PPko

ANGEL OLASO VILLALBA j. (eleduna)

Ezker Batua-Berdeak-eko



XABIER POMBO GONZALEZ j. (eleduna)

EAKo

MIRIAM CANO PUY andrea (eleduna)

Ohiko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako datan eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Ez du ezin etorria justifikatu PSE-EE-PSOeko zinegotzi José Basterra Marfil jaunak.

Bilkura-buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 9:00etan; ondoren, gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

1.- Aurreko batzarretako aktak irakurri eta onarzea: 10. eta 11. aktak, 2007ko urriaren 30ekoak.

Udalbatzak goiburuan aipatzen diren aktak aztertu ditu, eta bertaratutako zinegotzien gehiengoak onartu eta dagokien akta-liburura transkribatzeko erabakia hartu du.

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen bozketaren emaitza: HAMAHIRU (13) aldeko boto, Pasaia EAE-ANV (7), PSE-EE-PSOE (4), PP (1) eta Ezker Batua-Berdeak (1) taldeetako zinegotzianak; eta HIRU (3) abstentzio, EAJ (2) eta EA (1) taldeetako zinegotzianak.

2.-Xedapen Ofizialak eta alkate eta zinegotzi ordezkarien ebazpenen berri ematea.

Bertaratutakoen esku jarri da alkate eta zinegotzi ordezkarien ebazpenen liburua, horren berri izan dezaten.

- Halaber, Jarduneko Idazkariak ondorengo epaien berri ematen du:
 - 253/2007 Epaia, 2007ko azaroaren 22koa, Administrazioarekiko Auzien Donostiako 1. Epategiarena, 448/2005 zenbakia duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokiona. Errekurtso hori Nicasio Ramon Arrieta jaunak jarri zuen, Hirigintza eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkariak 2005eko maiatzaren 20an emandako ebazpenaren aurka. Epaian errekurtsoa onartzen da; beraz, udalak Botero taberna itxi behar du, arduradunek ez badute egiaztatzen bere garaian eskatu zitzaizkien neurri zuzentzaileak bete dituztela.

- 265/2007 Epaia, 2007ko azaroaren 23koa, Administrazioarekiko Auzien Donostiako 1. Epaitegiarena, 48/2005 zenbakia duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokiona. Errekurtso hori Talleres Mecanicos Kai-Alde S.A.L.k jarri zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2004ko urriaren 27an hartutako erabakiaren aurka. Epaian errekurtsoa zati batean onartzen da; eta udalari ondorengo zigorra ezartzen zaio: 22.225 euro ordaintzea errekurtsoa jarri duen enpresari, eta ur-bilketarako erreten berri bat egitea, alkateordetzako hormaren eta enpresa dagoen eraikineko teilatu-paretaren artean.

- 266/2007 Epaia, 2007ko azaroaren 23koa, Administrazioarekiko Auzien Donostiako 1. Epaitegiarena, 208/2005 zenbakia duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokiona. Errekurtso hori Ana Lertxundi Zugasti andreak jarri zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko urtarrilaren 24an hartutako erabakiaren aurka. Epaian ezetsi egiten da errekurtsoa, eta berretsi egiten da errekurritutako akordioa, errekurtso-jartzaileak bere etxebizitzan egindako obrak legezta ezintzat jotzen dituen.

- 2007ko abenduaren 3ko Epaia, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiarena, Pasaiako Udalak Merkataritzako Donostiako 1. Epaitegiak 2007ko urtarrilaren 2an emandako epaiaren aurka jarri zuen apelazio-errekurtsoari dagokiona. Epai hura L2 141/06 zenbakia duen ohiko prozedurari zegokion. Probintzia Auzitegiak errekurtsoa ezetsi eta lehenengo auzialdian emandako epaia berresten du, eta udalari ondoko zigorra ezartzen dio: Egile eta Editoreen Elkarteari 16.229,53 euro gehi legezko interesak eta sortutako kostuak ordaintzea.

3.-Alkatearen gestioak eta Gobernu Organoen kontrola (T.E.E.O.L.ren 46.2.e) artikulua **arabera).**

Azken saioaz geroztik Alkatetzan egin diren gestioen berri eman du alkateak. Honakoak dira:

- Herrerako enpresariekin bilera, Navalaldera lekualdatzeari buruzkoa. Enpresariak laguntza eskatu diote Foru Aldundiari.

- Karmengo Amako irakasleekin eta ikasleen gurasoekin bilera. Gela berriak eraikitzeko proiektuaren berri eman genien. Eurekin batera bilera bat eskatu dugu Hezkuntzako ordezkari Arantza Lakarekin.

- Papineko enpresariekin bilera. Aurreikusita dagoen bidea konponbide egokitzen jo dute, baina ez dute betiko bertan geratu nahi.
- Lezo, Errenteria eta Donostiako udalekin hartu-emanak, Portuko Plan Bereziaren inguruko hitzarmen bat sinatze aldera.

PERTSONAL ETA ADMINISTRAZIOA

4.- San Pedroko Pablo enea auzoa urbanizatzeko lanen esleipena (3. zatia).

L.K.S. INGENIERIA,S.COOP.-ek idatzitako obra-proiektua onetsi zen. Lan horiek kontratatzeke espedientea ere onetsita dago. Bertan adierazten da lanen aurrekontua **2.618.793,93** €koa dena. Prozedura **irekia** erabiliz, tramitazio **arrunt** bidez eta **enkante** bidez esleituko da kontratua. Jarduketa hau, besteak beste, Eskualde Garapeneko Europako Funtzarekin finantzatu da, auzo eta udalerrietako irisgarritasuna eta saneamendua hobetzeko programaren baitan, eta PIC URBAN II Donostia-Pasaiaren barruan; horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere finantzatu du, Pasaiako Udalarekin duen lankidetzeta-markoaren baitan.

Eskaintza aurkezteko epea bukatu zen eta Kontratazio Mahaiak aurkeztutako eskaintzak ireki ondoren, proposamen hauek onartu zituen:

1. proposamena: **CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A.-k: 2.494.139,33** €ko eskaintza egin du.

2. proposamena: **ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A.-k: 2.398.070,--**€ko eskaintza egin du.

3. proposamena: **CONSTRUCCIONES OTEGI-GAZTAÑAGA, S.L.-k: 2.211.571,47** €ko eskaintza egin du.

4. proposamena: **CONSTRUCCIONES FRESNEDA, S.L.-k: 2.480.014,84** €ko eskaintza egin du.

5. proposamena: **CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A.-k: 2.585.460,59** €ko eskaintza egin du.

6. proposamena: **CONSTRUCCIONES OTEGI-GAZTAÑAGA, S.L.-k: 2.495.471,72 €**ko eskaintza egin du.

Kontratazio Mahaiak 2007ko abenduaren 14ko bileran emandako ebazpen-proposamena aztertuta, Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi gehienek adostasunez eta 2007ko abenduaren 18ko Pertsonal eta Administrazioako Informazio Batzordearen irizpena aztertu ondoren, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- “PASAI SAN PEDROKO PABLO ENEA AUZOA URBANIZATZEA-3. ZATIA” obra egiteko lanak **CONSTRUCCIONES OTEGI-GAZTAÑAGA, S.L.**, enpresari esleitzea. Kontratua **2.211.571,47 €**koada, BEZ barne, eta indarrean dagoen udal **A-388/07 eta A-1.132/07 baimenduetatik** ordainduko da. Lana gauzatzeko **HAMAR hilabeteko** epea izango du.

BIGARRENA.- Esleipendunak **88.462,86 €**ko behin betiko bermea, **adjudikazio-prezioaren % 4a**, jarri beharko du ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik **hamabost egun balioduneko** epean. Halaber, aldizkari ofizialetan argitaratutako lizitazioaren iragarkiak ordaindu beharko ditu esleipendunak.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinarazi eta jar ditzakeen errekurtsoen berri ematea. Era berean, **hamabost egunen** buruan Udalera agertu behar duela adieraztea kontratua administrazio-agiri moduan formalizatzeraz; kontratistaren erruz hori egin ezean, Udalak aukera izango du interesdunarekin hitz egin ondoren kontratua suntsitzeko, eta interesdunak kalte eta galerak ordaindu beharko ditu.

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen bozketaren emaitza: **HAMABOST (15)** aldeko boto, Pasaiako **EAE-ANV (7)**, **PSE-EE-PSOE (4)**, **EAJ-PNV (2)**, **PP (1)** eta **Ezker Batua-Berdeak (1)** taldeetako zinegotziena; eta abstentzio **BAT (1)** EA taldeko zinegotziena.

5.- Elkarkidetzaren kontrol-batzordea. Udalak pentsio-planeri egingo dien ekarpena.

EPSV-Elkarkidetzak idatzia aurkeztu zuen eta bertan eskatzen zuen aurrerantzean udalaren ekarpenak zuzenean, EPSV beraren alde egiteko eta ez pentsio fondoetara, orain egiten zen bezala; halaber eskatzen zuen udalak aipatutako pentsio fondoei egindako ekarpenek sortutako eskubide ekonomikoak EPSV horretara mobilizatzeke.

Elkarkidetzaren Kontrolerako Batzorde Paritarioaren osaketa instituzionala berriro beharra dagoenez, Udalbatzak, zinegotzi gehienek adostasunez eta 2007ko abenduaren 18ko Pertsonal eta Administrazioako Informazio Batzordearen irizpena aztertu ondoren,

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Elkarkidetza – Pasaiako Udala Pentsio Planen Kontrolerako Batzorde Paritarioaren osaketa instituzionaleko kide berri bezala honako udalkide hauek izendatzea: Maider Ziganda Población alkate andrea, Joaquín Martínez Vidal zinegotzi jauna, Angel Olaso Villalba zinegotzi jauna eta Miriam Cano Puy zinegotzi andrea; eta Batzorde Paritarioa aurreko erakundeen ordezkariak bere kargua uztea.

BIGARRENA.- Hemendik aurrera udalaren ekarpenak zuzenean EPSV-Elkarkidetzari egitea.

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen bozketaren emaitza: HAMAIKA (11) aldeko boto, Pasaiako EAE-ANV (7), EAJ-PNV (2), PP (1) eta EA (1); LAU (4) aurkako boto PSE-EE-PSOE taldeko zinegotzian; eta abstentzio BAT (1) Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotziana.
- Hitzartzeen atalean ondorengoak esan dituzte:
 - Lore Suarez andreak azaldu du zergatik eman duen aurkako botoa bere taldeak: Elkarkidetzaren gaian orain arte izan duten jarrerarekin koherentziaz jokatzearren.

HIRIGINTZA

6.- Hirigintza eta Ingurumeneko Aholku Batzordearen Arautegia.

2007ko abenduaren 19an Hirigintza eta Ingurumen Batzordean testu honen aldeko irizpena egin zuten:

“2007-12-10ean amaitu zen epea Hirigintzako Plangintzako Aholku Batzordearen Udala Araudiari alegazioak jartzeko. Banatu azaroko Hirigintza eta Ingurumen Batzordean egin zen.

Aipatutako epean hiru alegazio idatzi aurkeztu dira, PSE-EE, EB eta Basari Elkarteak aurkeztuak hurrenez hurren.

EAE-ANV, PSE-EE eta EB udal taldeek aldaketa batzuk adostu dituzte eta udal idazkariaren ekarpen batzuk sartu dituzte, eta horiek Batzorde honetan banatu den agirian jasotzen dira.

Udal Plangintzako Aholku Batzordea kontsulta organo bat da, eta hausnartzailea, gizarte-itun zereginak betetzeko hirigintza-planen formulazio, tramitazio eta onarpen prozeduretan, eta EAEko 2/2006 Lurzoruaren Legeko 110. artikuluaekin bat etorritik, udal araudi bitartez zehaztuko



da Udal Plangintzako Aholku Batzordearen osaera, funtzionamendua, eraketa eta desegitea. Buru udaleko alkateak izan behar du, eta hirigintza arloko zinegotzi arduradunak kide. Nolanahi ere, organo honen osaerak bermatuko du auzo elkarteen presentzia eta udalerrian ingurumena babestea helburu duten elkarteena.

Araudi organikoa onartzeko botoen gehiengo osoa behar da Tokiko Araubidearen Oinarrien Legeko 47.2 f) artikulua araberera.

Gaia aztertu, eta EAE-ANV, PSE-EE eta EBren aldeko boto ponderatuekin, eta EAJ eta EAren abstentzioarekin, honako akordio hau onartzea proposatzen da:

AKORDIOA

LEHENA.- Hasierako onespina ematea Hirigintza Plangintzako Aholku Batzordeari, irizpen honekin batera doan agirian egin diren aldaketak barne direla.

BIGARRENA.- Jendaurrean jartzea hogeita hamar eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraturik, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko.

2007ko abenduaren 20an egindako txostenean, udal idazkariak honako hau adierazi zuen:

AURREKARIAK:

***EAEko Lurzoruaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak**, 108.tik 110.erako artikuluetan jasotzen du herritarrek zein tresna dituzten hirigintza plangintza egin, izapidetu eta onartzean parte har dezaten.*

109. artikulua zehazki honela definitzen du Udal Plangintzako Aholku Batzordea deritzana “aholkurako eta eztabaidarako organo lokal bat da, hirigintza-planak egin, izapidetu eta onartzeko prozedurari dagokionez kontzertazio sozialerako funtzioak beteko dituen”, eta nahitaez eratu beharrekotzat jotzen du “plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena, berez edo eskuordetzan emanda duten udalerrietan”, eta Pasaian hala da, 7000 biztanletik gorako udalerria denez.

*Paraleloki **uztailaren 18ko 27/2006 Legeak** herritarrek ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, parte hartzeko eta justiziara heltzeko dituzten eskubideak arautzen ditu. Lege horren xedea da, besteak beste, honako eskubide hau arautzea “a participar en los procedimientos para*

la toma de decisiones sobre asuntos que incidan directa o indirectamente en el medio ambiente, y cuya elaboración o aprobación corresponda a las Administraciones Públicas.”

Zehazki 3.2. artikuluan, parte-hartze publikoari dagokionez, ingurumen gaietan eskubideak zein diren zerrendatzen dira:

“a) A participar de manera efectiva y real en la elaboración, modificación y revisión de aquellos planes, programas y disposiciones de carácter general relacionados con el medio ambiente incluidos en el ámbito de aplicación de esta Ley.

b) A acceder con antelación suficiente a la información relevante relativa a los referidos planes, programas y disposiciones de carácter general.

c) A formular alegaciones y observaciones cuando estén aún abiertas todas las opciones y antes de que se adopte la decisión sobre los mencionados planes, programas o disposiciones de carácter general y a que sean tenidas debidamente en cuenta por la Administración Pública correspondiente.

d) A que se haga público el resultado definitivo del procedimiento en el que ha participado y se informe de los motivos y consideraciones en los que se basa la decisión adoptada, incluyendo la información relativa al proceso de participación pública.

e) A participar de manera efectiva y real, de acuerdo con lo dispuesto en la legislación aplicable, en los procedimientos administrativos tramitados para el otorgamiento de las autorizaciones reguladas en la legislación sobre prevención y control integrado de la contaminación, para la concesión de los títulos administrativos regulados en la legislación en materia de organismos modificados genéticamente, y para la emisión de las declaraciones de impacto ambiental reguladas en la legislación sobre evaluación de impacto ambiental, así como en los procesos planificadores previstos en la legislación de aguas y en la legislación sobre evaluación de los efectos de los planes y programas en el medio ambiente.”

Legeko III. Idazpuruaren izenburua da “Derecho de participación pública en asuntos de carácter medioambiental” eta honako arauak ditu:

“Artículo 16. Participación del público en la elaboración de determinados planes, programas y disposiciones de carácter general relacionados con el medio ambiente.

1. Para promover una participación real y efectiva del público en la elaboración, modificación y revisión de los planes, programas y disposiciones de carácter general relacionados con el medio ambiente a los que se refieren los artículos 17 y 18 de esta Ley, las Administraciones Públicas, al establecer o tramitar los procedimientos que resulten de aplicación, velarán porque, de conformidad con lo dispuesto en el apartado 2 del presente artículo:

a) Se informe al público, mediante avisos públicos u otros medios apropiados, como los electrónicos, cuando se disponga de ellos, sobre cualesquiera propuestas de planes, programas o disposiciones de carácter general, o, en su caso, de su modificación o de su revisión, y porque la información pertinente sobre dichas propuestas sea inteligible y se ponga a disposición del público, incluida la relativa al derecho a la participación en los procesos decisorios y a la Administración pública competente a la que se pueden presentar comentarios o formular alegaciones.

b) El público tenga derecho a expresar observaciones y opiniones cuando estén abiertas todas las posibilidades, antes de que se adopten decisiones sobre el plan, programa o disposición de carácter general.

c) Al adoptar esas decisiones sean debidamente tenidos en cuenta los resultados de la participación pública.

d) Una vez examinadas las observaciones y opiniones expresadas por el público, se informará al público de las decisiones adoptadas y de los motivos y consideraciones en los que se basen dichas decisiones, incluyendo la información relativa al proceso de participación pública.

2. Las Administraciones públicas competentes determinarán, con antelación suficiente para que pueda participar de manera efectiva en el proceso, qué miembros del público tienen la condición de persona interesada para participar en los procedimientos a los que se refiere el apartado anterior. Se entenderá que tienen esa condición, en todo caso, las personas físicas o jurídicas a las que se refiere el artículo 2.2 de esta Ley.

3. Lo previsto en este artículo no sustituye en ningún caso cualquier otra disposición que amplíe los derechos reconocidos en esta Ley.”

Azkenik, 19. artikulua arautzen du Ingurumeneko Aholku Batzordea deritzana: “como órgano adscrito a efectos administrativos al Ministerio de Medio Ambiente, que tiene por objeto la participación y el seguimiento de las políticas ambientales generales orientadas al desarrollo sostenible.

Esta Ley viene a trasponer al derecho interno la Directiva 2003/35/CE, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de mayo de 2003, por la que se establecen medidas para la participación del público en determinados planes y programas relacionados con el medio ambiente y por la que se modifican, en lo que se refiere a la participación pública y el acceso a la justicia, las Directivas 85/337/CEE y 96/61/CE fruto del Convenio de la Comisión Económica para Europa de Naciones Unidas sobre acceso a la información, la participación del público en la toma de decisiones y el acceso a la justicia en materia de medio ambiente, hecho en Aarhus el 25 de junio de 1998.

Uno de los pilares sobre los que se asienta el Convenio de Aarhus es precisamente el de la participación del público en el proceso de toma de decisiones, que se extiende a tres ámbitos de actuación pública: la autorización de determinadas actividades, la aprobación de planes y programas y la elaboración de disposiciones de carácter general de rango legal o reglamentario.

2004ko martxoaren 17an Udalbatzak IHOBE, Aldundi eta Oarsoaldearen arteko Lankidetzeta Hitzarmena sinatzea onartu zuen.

Hitzarmen honetan Pasaiaiko Udalak bere gain hartu zuen Tokiko Agenda 21 ezartzeko konpromisi-soa, Pasaiaiko Udalak udalerrriaren garapen iraunkorrerako duen konpromiso politiko gisa.



Pasaiako Udalak Tokiko Agenda 21ekin duen konpromisoa berretsi egiten da Aalborg kartari atxikitzean.

Aalborg karta hiri iraunkorrei buruzko Europako Konferentzian onartu zen, Aalborgen, Danimarkan, 1994ko maiatzaren 27an.

Bertan, parte-hartzaileek garapen iraunkorraren aldeko hainbat neurri adostu zuten, hala nola, da-goien kapital naturala mantentzea (ur-erreserbak, espezie berezien habitatak), plan guztien inguru-men-azterketa eskatzen duen lurralde-antolamendurako politikak aplikatzea, hiri-mugikortasun iraunkorra. Era berean, karta honen sinatzaileek konpromisoa hartzen dute iraunkortasunaren aldeko tokiko ekintza planak garatzeko, Tokiko Agenda 21, eta horretarako metodologia jakin bat era-biltzeko.

Udalak 2004ko irailaren 28ko osoko bilkuran erabaki zuen iraunkortasunaren aldeko europar hirien "Aalborg karta" delakoari atxikitzea.

Parte-hartze publikoari dagokionez, kartak konpromiso hau jasotzen du: "Herritar eta interesdun talde guztiei bermatuko diegu informaziorako sarbidea eta tokiko erabakietan parte har dezaten zainduko dugu"

TXOSTENA

Tokiko Jaurbidearen Oinarrien Legeko 4.1. artikuluari jarraiki, udalerriei dagokie euren eskumenen arloan erregelamenduak egiteko ahala eta baita autoantolaketa ahala ere.

Zehatzago TAOLeko 70 bis 1 artikuluan adierazten da "Udalek, arau organikoen bidez, tokiko bizitza publikoko gaietan auzotarrek benetako parte-hartzea izan dezaten egokitutako prozedurak eta organoak ezarri eta arautu behar dituzte, bai udalerrri osorako zein barrutietarako, baldin eta udalerrian halako lurralde-banaketa badago".

Herritarren parte-hartzea bermatzea TAOLen lehentasunetako bat da, eta 69.1 artikuluan agindua ematen zaie Toki Korporazioei beren jardueraz ahal den informazio gehiena eman dezaten eta herritar guztien parte hartzea erraztu dezaten.

Autoantolatzeko ahalmenaren muga bakar gisa TAOLeko 69. artikuluko 2. idatz-zatiak xedatzen du korporazioek beren burua antolatzeko ahalaz baliatuz ezar ditzaketan partaidetzako moduek, baliabideek eta prozedurek inolaz ere ezingo dituztela gutxietsi lege bidez araututako ordezkaritza-organoei dagozkien erabakitzeko ahalmenak.

Toki Araubideko Testu Eraberrituak berriz, 55. artikuluan xedatzen du Erregelamenduek inoiz ez dutela Legeen aurkako agindurik edukiko.

Txosten honen aurrekarietan adierazi bezala, Araudiaren xede zehatza herritarren parte hartzea arautzea da hirigintza arloan, eta ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Hirigintzari eta Lurzoruari buruzkoak, arauzko kategoria izatera ekarri du.

Hala ere ez du ematen aukerarik egokiena eta arrazionalena diseinatu den bezalako Aholku Batzorde eskumen mugatukoa denik kontuan hartzen badugu 27/2006 Legean, ingurumen gaietan parte-hartze eskubidea arautzen duenean, zer xedatzen den.

Berez, Udalak berak administrazio arlo bakarra eratu du Hirigintza eta Ingurumenarekin eta Udal Araudi Organikoak Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordea aurreikusten du.

Izatez, hirigintza eta ingurumena errealitate berberaren bi aldeak dira edo txanpon beraren aurkia eta ifrentzua eta bien tratamendu bateratua hain da ezin eztabaidatuzkoa ezen arautegiak berak ere Ingurumen Eraginaren Ebaluaziorako tresnak ordenazio-plan eta obra publikoen proiektuekin batera tramitatu beharrekotzat jotzen baititu.

Are gehiago, 2004ko martxoaren 17an eta irailaren 28an hartu ziren udal akordioak ildo beretik doaz.

Horregatik guztiagatik proposatzen da Aholku Batzordearen izendapena “Hirigintza eta Ingurumen gaietako Aholku Batzordea” izatea, eta haren zereginen artean hauek ere egotea: Kutsaduraren prebentziorako eta kontrol integraturako legerian arautzen diren baimenak emateko tramitatzen diren administrazio-prozedurei buruzko txostena eta azterlana, ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko legerian arautzen diren ingurumen-eraginaren deklarazioak, eta halaber ur-legerian ingurumenarekin oro har zerikusia duten egitasmo, programa eta proiektuek dituzten ondorioei buruzko ebaluazioari buruzko legerian aurreikusten diren plangintza-prozesuetan, eta zehazki gai hauetan:

- a) Uren babesa.*
- b) Zarataren aurkako babesa.*
- c) Lurzoruaren babesa.*
- d) Eguraldi kutsadura.*
- e) Landa eta hiri lurraldearen antolaketa eta lurzoruaren erabilera.*
- f) Izadiaren kontserbazioa, aniztasun biologikoa.*
- g) Mendiak eta baso ustiapenak.*
- h) Hondakinen kudeaketa.*
- i) Produktu kimikoak, pestizidak eta biozidak.*
- j) Bestelako igorpen, isurketa eta ingurumenean substantziak askatzea.*
- k) Ingurumen eraginaren ebaluazioa*

Azkenik, onartzeko prozedurari dagokionez, TAOLeko 49., 70.2. eta 70 bis artikuluei jarraiki, udalbatzaren gehiengo osoa behar da, jendaurrean jartzeko izapidea eta interesdunen entzunaldiarena –TAOLeko 72. artikulua aipatzen dituen interes orokor eta sailkako defentsarako auzo elkarteak- eta alegazioak eta iradokizunak aurkezteko 30 laneguneko epea ematea.

Alegaziorik aurkeztuko balitz, haietaz txostena egin beharko da eta behin betiko onarpenerako dagokion udalbatzarrean aurkeztu beharko dira.

Alegaziorik aurkeztuko ez balitz, orduraino behin-behinekoa litzatekeen akordioa behin betiko bilakatuko litzateke.

Nolanahi ere, behin betiko onarpena eman ondoren ordenantzaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean sartuko TAOLeko 65.2 artikuluan aurreikusten den hamabost eguneko epea igaro arte.

Alkateak zuzenketa bat egin dio aldeko irizpena jaso duen testuari, alegia, jatorrizko testuan udal idazkariak bere txostenean proposatutako aldaketak egin eta eranskinak gehi daitezela.

Zuzenketa bozkatu eta bertan diren zinegotzi gehienek adostasunez onartu dute.

- Aktan jasota gera dadin, hona hemen bozketaren emaitza: HAMAHIRU (13) aldeko boto, Pasaiako EAE-ANV (7), PSE-EE-PSOE (4), PP (1) eta Ezker Batua-Berdeak (1) taldeetako zinegotzianak; eta HIRU (3) abstentzio, EAJ (2) eta EA (1) taldeetako zinegotzianak.
- Hitzartzeen atalean honako hauek esan dituzte:
 - Izaskun Gomez andreak adierazi du bere taldeak aldeko botoa emango duela, batzordean haren iradokizunak onartu zirelako.
 - Miriam Cano andreak azaldu du zergatik abstenituko den: bere iritzian Aholku Batzordean gehiegi irekitzen da parte-hartzea, eta horrek eraginkortasuna murrizten du. Parte-hartzearen eta eraginkortasunaren arteko oreka lortu behar dela deritza. Arrazoi pertsonalak direla eta, ekarpenak egiteko epea pasa zitzaion, beraz, horretarako eman den epean alegazioak egingo ditu.
 - Xabier Pombok aldeko botoa emango du, batzordean bere taldeak egindako ekarpenak onartu zirelako.
 - Angel Olaso jaunak adierazi du aurkeztutako dokumentua ondo dagoela, baina bat dator parte-hartze zabalak batzordeari eraginkortasuna kenduko diolako baieztapenarekin. Haren iritzian, kontuan hartu behar da udalkideak pasaitarren ordezkariak direla.

OGASUNA

7.- Diru-sarrereren hondakinetan baja. (Errenta Zerbitzua eta Diruzaintza).

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez eta 2007ko abenduaren 18ko Ogasuneko Informazio Batzordearen irizpena aztertu ondoren, honako hau

ERABAKI DU

Diru-sarrereren hondakinetan baja onartzea: 142.132,09 euro (Errenta Zerbitzua) eta 12.235,81 euro (Diruzaintza).

8.- Diru-sarrereren hondakinetan baja. (Kontabilitatea).

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez eta 2007ko abenduaren 18ko Ogasuneko Informazio Batzordearen irizpena aztertu ondoren, honako hau

ERABAKI DU

Diru-sarrereren hondakinetan baja onartzea: 128.535,39 euro (Kontabilitateko baja).

9.- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Hitzarmena, zerga-informazioa bide telematikoz ematearen inguruan.

Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez eta 2007ko azaroaren 15eko Ogasuneko Informazio Batzordearen irizpena aztertu ondoren, honako hau

ERABAKI DU

Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskaliterako eta Finantzeterako Departamentuarekin lankidetzahitzarmen bat sinatzea, zerga-informazioa ematearen inguruan.

MOZIOAK

10. 18/98 prozesuari buruzko mozioa.

Pasaiako EAE-ANVk mozio hori aurkeztu du eta bozketan ez da onartu, bertan diren zinegotzi gehienek adostasunez.



EAJ, Ezker Batua-Berdeak eta EA talde politikoetako eledunek zuzenketa bat aurkeztu dute, baina hori ere ez da onartu, bertan diren zinegotzi gehienek adostasunez.

- Aktan jasotzeko, bozketaren emaitza honako hau da:

Mozioak aldeko ZAZPI (7) boto jaso ditu, Pasaiako EAE-ANVko zinegotzianak; eta aurkako BEDERATZI (9) boto, PSE-EE-PSOE (4), EAJ (2), EA (1), eta PP (1) taldeetako zinegotzianak.

Zuzenketak aldeko LAU (4) boto jaso ditu, EAJ (2), EA (1) eta Ezker Batua-Berdeak (1) taldeetako zinegotzianak; aurkako BOST (5) boto, PSE-EE-PSOE (4) eta PP (1) taldeetako zinegotzianak; eta ZAZPI (7) abstentzio, Pasaiako EAE-ANVko zinegotzianak.

- Hitzartzeen atalean honako hauek esan dituzte:
 - Ander Pozak mozioa aurkeztu eta baieztatu du espetxeratzeekin ez dela gatazka konpontzen, eta EAE-ANV lanean jarraituko duela, espetxeratuak izateko arriskuan dauden arren.
 - Xabier Pombo jaunak zuzenketa aurkeztu du eta adierazi du kutsu politiko argia duen prozesua dela. Jarraitu den prozedura kritikatu du eta iraganeko gertakaria dela iritzi dio, eta alde handia dagoela finkatutako demokrazia baten prozedura judizialekin.
 - Miriam Cano andreak adierazi du jatorrizko mozioaren ordezkari gisa aurkeztu den testua nahikoa zabala dela adostasuna lortzeko, eskubide guztiekiko errespetua aipatzen delako. Adierazi du Euskal Herriaren alde ez duela edozerk balio. Bat dator 18/98 prozesuari egindako kritikekin, baina ez dator bat EAE-ANVrekin independentismoa kriminalizatzen ari direlako adierazpenean, eta horren froga gisa adierazi du bere partidua ez dutela kriminalizatu.
 - Angel Olaso jaunak ondorengo esan du:

“1º: Hemen gaudenak pasaitarren ideien ordezkariak gara, eta lehentasun ezberdinak dauzkagu. 5 talde plural gara, nola kopuruan hala ideietan. Horrek ez du esan nahi etsaiak garenik, ezta gure artean areriotasuna sortzen dugunik; baizik eta norberak nahi duen bezala hitz egin dezakeela, gehiengo eta gutxiengoak elkarri errespetatuz. Hori demokrazia da indarkeriarik gabe hitz egiten dugulako, libreki hitz egiten dugulako, eta, oraingoz, indarkeria onartzen ez dugulako. Orduan, zergatik ez dugu hemen dugun jokabide hau kalera eramaten, denak batean euskal herria bagara? Nazionalistak eta nazionalistak ez direnak, independentistak eta autonomistak demokrata onen moduan jokatzeko dugu hemen. Zergatik ez dugu berdinez egiten jendearekin?”

2º: Hau diot, hertsatzea, estortsioa eta gure herritarren hilketa onartzen badituzue, nik eta nire lagunetako askok eskoltak eraman behar izatea onartzen dugulako. Badakizue, ezagutzen nauzelako eta nire bitartez Partidu Popularra ezagutzen duzelako, ideia bakezaleak dauzkagula eta ez indarkeriaren aldekoak; beraz, ez da onargarria gu eskuin muturrarekin edo faxismoarekin identifikatzea. Ideietan bat ez etortzeak ez du esan nahi zuen aurka gaudenik. Horregatik espero dut zuek hemen laster beste MOZIO bat aurkeztea, ezberdin pentsatuagatik Euskal Herriaren etsai ez garenok eskoltak kentzearen aldekoa. Aske sentitzeko eskubidea dugu; eta gure iritziak defendatzekoa, zuek zuenak defendatzen dituzuen bezalaxe, zuenak bezain legitimoak direlako.

3º: Ezin dut zuen MOZIOA onartu, ideia independentistak ideien espetxeratze moduan aurkezten direlako. ETAko arraunlariak –horrela izendatu dituzte, egoki– ideia bortitzak bultzatzen dituzte eta zuek, marinel herri zareten aldetik, badakizue kirol hau lehia zintzo eta kiroltasun handikoa dela, gure Euskal Herriko betiko espiritualtasun sakona ez bezalakoa. Zuek, hemen zaudetenak, ez zaudete preso, justiziaren makilkada jasan dutenek bezala pentsatzen duzuen arren. Izan ere, espetxeratuak izan direnak ENAMen barruan indarkeriaren aldeko ideietan oinarrituriko egituren barne daude, eta ideia horiek praktikan jarri eta justifikatzen dituzte. Beraz, demokrazian ez dira existitzen iritzi delituak, ezta jazarpen eta kriminalizazioak ere. Gure autonomia instituzionala ez dago ideia bortitzetan oinarrituta, indarrean dagoen Gernikako Estatutuan baizik, euskal herritarren %80k onartu zuena. Aldiz, independentziaren aldeko filosofia, printzipioaren zapatan behartuta sartutako hanka da. Autonomia gurea da, independentzia espainiar guztiona. Eskerrik asko.”

- Jose Luis Goikoetxea jauna bat dator Miriam Cano andreak esandakoarekin. Bere iritzian, azken atentatuak frogatzen du egoera ezin txarragoa dela. Barregarria litzateke EAJk bere taldeari kritika egiten dion mozio baten aldeko botoa ematea. Adierazi du akordioak lortzearen alde dagoela, baina ez direla saiatu eurekin adostasunik lortzen.
- Ander Poza jaunak azaldu du gakoa dela eguneroko lanean zer egiteko prest gauden aipatutakoak bezalako egoerak saihesteko, ahozko gaitzespenez haratago. Praktikan ez daude indarkeria guztien aurka eta arazoaren jatorrira jo behar dugu.
- Miriam Cano andreak adierazi du arazoak jatorri bat baino gehiago duela. Zergatik eta nola prest gauden borrokatzeko, guztiok norabide berean eta balore berberekin. Esan du euskal gizartea anitza dela eta eskubide guztien zapalketa kontuan hartu behar dela.
- Angel Olaso jaunak errepikatu du beharrezkoa dela udal ordezkarien artean dagoen indarkeriarik gabeko giroa kalera eramatea.
- Obdulia Lorenzo andreak adierazi du gatazkaren jatorria politikoa dela, eta beraz, ez dela konpontzen adostasuneko giroa sortuz, konponbidea politikoa dela. Bere iritzian indarkeria-adierazpenak dira sakabanaketaren ondorioz preso baten senitarteko bat hiltzea, torturak... Galdetu du zer egiteko prest dauden indarkeria- adierazpen guztiak konpontzeko.

- Juan Manuel Dominguezek adierazi du EAE-ANVk etsenplu ematen duenean, bere laguntza emango diela, independentista ez den arren.

11. Ezker Batua-Berdeak taldeak aurkeztutako mozioa, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren ingurukoa.

Alkatetzak puntu hau gai-zerrendatik kendu du, idazkariaren txostena falta delako; izan ere, aurreko udalbatzarrean idazkariari eskatu zioten txostena egiteko, udalbatzako kideen herenera heltzen ez den udal talde batek mozioak aurkezteko aukera duen edo ez argitzeko.

- Hitzartzeen atalean honako hauek esan dituzte:
 - Xabier Pombok barkamena eskatu du mozioa garaiz aurkeztu ez zuelako; izan ere, aurreko udalbatzarrean eztabaidatzeko asmoa zuen.
 - Angel Olaso jaunaren iritzian genero indarkeria bi generoek egiten dute, eta gizonezkoei ere tratu txarra ematen zaie, eta hiltzen dituzte, gutxiago badira ere. Bere iritzian gaiaren alderdi batzuk bakarrik hartzen dira kontuan, alderdi psikologikoak alde batera utzita. Indarkeria sortzen da jende gaixo asko dagoelako.
 - Izaskun Gomez andreak adierazi du mozioa eztabaidatuko balitz, bere taldea abstenitu egingo litzatekeela; ez zaiolako haiek egindako galderari erantzun, hau da, Ezker Batua-Berdeak taldeak bakarrik mozioak aurkezteko aukera duen. Forma kontu berberetatik, hurrengo puntuan ere haren taldea abstenitu egingo dela esan du.
 - Alkateak adierazi du egia dela aipatu duen idazkariaren txostena falta dela. Ondorioz, aukera eman du bi mozio eztabaidagarriak kendu eta hurrengo udalbatzarrerara ekartzeko, udal idazkariak txostena idatzi ondoren.
 - Xabier Pomboren iritzian mozio batzuk isildu nahi dituzte, soilik talde politiko bakar batek aurkezten dituelako. Onuragarria deritzo aurkezten den guztia eztabaidatzeari, proposatzen duen taldeak zinegotzi bakarra izan arren.
 - Izaskun Gomezek ukatu egin du Ezker Batua-Berdeak-eko zinegotzia isildu nahi dutenik. Adierazi du Udal Araudi Organikoaren artikulua bati buruzko txostena eskatu duela; eta Pombo jaunak uste badu artikulua hori kaltegarria dela haren taldearentzat, aldatzeko eskatu beharko duela. Pombo jaunari eskatu dio mozioak “alkate andre”ari zuzentzeko, eta ez “alkate”ari.

- Alkateak esan du bere taldeak ez duela asmorik inork foro honetara gaiak ekartzeari utz dezan aipatutako arrazoiagatik; baina, aurreko batzarrean aipatu txostena eskatu zenez, txostena egin arte itxoin beharko dela. Horiek horrela, puntu hau eta hurrengo gai-zerrendatik kendu ditu.

12. Ezker Batua-Berdeak taldeak aurkeztutako mozioa, Eguberri ekologikoki arduratsuak lortzearren.

Alkatetzak puntu hau gai-zerrendatik kendu du, idazkariaren txostena falta delako; izan ere, aurreko udalbatzarrean idazkariari eskatu zioten txostena egiteko, udalbatzako kideen herenera heltzen ez den udal talde batek mozioak aurkezteko aukera duen edo ez argitzeko

Galderak eta eskaerak.

- Karmengo Ama ikastetxeko instalazioetan bizi diren pertsonen ordezkari batek euren egoeraren berri eman du, okupatzen ari diren eraikina birkalifikatu ondoren. Adierazi du aurreko alkatearekin eta udal idazkariarekin bilera egin ondoren, eta haiek eskatu bezala, eraikinean bizi diren pertsonen zerrenda aurkeztu zutela. Dirudienez zerrenda hori ez dago udalean, beraz, ondorengo eskatu du: batetik, aipatu zerrenda non dagoen argitzeko eta udalak horri dagokionez zein gestio egin duen argitzeko. Bestetik, eta kontuan hartuta zein egoera larrian dauden, Alkatetzarekin bilera bat eskatu dute.
- Izaskun Gomez andreak adierazi du bere taldeak Alkatetza utzi zuenean zerrenda udaletxean zegoela, beraz, oraindik ere han egongo delakoan dago. Azaldu du informazio hori Hezkuntza Sailari helarazi zitzaiola eta sail horrek ez zuela erantzunik eman.
- Alkate andreak adierazi du ez duela dokumentazio horren berri. Prest dago bizilagunekin bilera bat egiteko eta udalbatzarra bukatu ondoren hitzordua adostuko dutela esan die.
- Jose Luis Goikoetxea jaunak azaldu du aipatu eraikina Hezkuntzari atxikia zegoela eta ondoren Etxebizitzaren Patronatuari atxiki zitzaiola. Adierazi du atxikipena aldatu bai, baina ez zela birkalifikatu, dioten moduan. Udal ondarea da eta gainerako pasaitarrek ere badute eskubidea etxebizitza horien esleipendun izateko; izan ere, eurek inolako titulurik gabe sartu ziren bertara.

Eta, beste gairik ezean, 10:06an batzarra amaiturik, nik, batzordeko jarduneko idazkariak, alkatearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin.

